



## Guraso bakarreko familientzako hobariak - 2022. urtea

### ZABOR-TASA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	BETEBEHARRAK	HOBARIA
<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hobari-eskabidea, guraso bakarreko familiaren justifikazioarekin batera (ikus eranskina).</li><li><input type="checkbox"/> Lehenengo aldia bakarrik eskatuko da idatziz. Aurrerantzean, behar diren datuak edukiz gero, urtez urte egiaztatzen delarik, ofizioz aplikatuko da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Ohiko etxebizitza.</li><li><input type="checkbox"/> Beste etxebizitza batzuk: beste inongo etxebizitzaren jabe ez izatea, % 50eko edo hortik gorako ehunekoan.</li><li><input type="checkbox"/> Guraso bakarreko familia izatea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Azaleraren arabera dagokien tar-tearen azpitik dagoen tarteari dago-kion kuota ordaindu beharko dute.</li><li><input type="checkbox"/> Tasa sortzen den egunean erroldatu-tuta dauden pertsonen arabera etxebizitzaren tarifikazioarekin den errekararen % 50eko hobaria izango dute.</li><li><input type="checkbox"/> Zabor-tasa honetako beste hobari batzuekin bateraezina da.</li></ul>

### DANTZA-ESKOLA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	BETEBEHARRAK	HOBARIA
<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hobari-eskabidea, guraso bakarreko familiaren justifikazioarekin batera (ikus eranskina).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Guraso bakarreko familia izatea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> % 50eko hobaria matrikulan</li></ul>

### LUIS ARANBURU UDAL MUSIKA ESKOLA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	BETEBEHARRAK	HOBARIA
<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hobari-eskabidea, guraso bakarreko familiaren justifikazioarekin batera (ikus eranskina).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Guraso bakarreko familia izatea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> % 50eko hobaria matrikulan</li></ul>

### KIROL INSTALAZIOETAKO ABONATUAK

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	BETEBEHARRAK	HOBARIA
<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hobari-eskabidea, guraso bakarreko familiaren justifikazioarekin batera (ikus eranskina).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Guraso bakarreko familia izatea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Abonatuaren urteko kuotan</li><li><input type="checkbox"/> Lehen seme edo alabak hirugarren lekua hartuko du, eta horrela hurrenez hurren.</li><li><input type="checkbox"/> Hirugarren lekua: adinaren arabera dagokion urteko kuotaren % 75 ordainduko du.</li></ul>

Udalaren webgunean eskura daiteke edukiari buruzko informazioa: [www.vitoria-gasteiz.org/zergak](http://www.vitoria-gasteiz.org/zergak)



## ERANSKINA

### GURASO BAKARREKO FAMILIAK

Guraso batek eta zaintzapean dituen seme-alabek osatutakoa izango da guraso bakarreko familia, ondoren adierazten diren betebeharrak betetzen dituztelarik:

**1.- Guraso bakarreko familia:**

- Aita edo ama bakarrik dago.
- Legezko banantzea izan da.
- Ezkontza-deuseztasuna deklaratu da, edo dena delakoa alargundu egin da.
- Ez da izatezko bikoterik eratu, izatezko bikoteak arautzen dituen legearen arabera.
- Ebazpen judiziala dago.

**2. Seme-alabak:**

- 22 urtetik beherakoak izan behar dute, edo
- % 33ko edo hortik gorako desgaitasun eduki, edo
- lan egiteko ezinduta egon, edozein adinekoak izanda ere.
- Adin muga: 25 urtera arte zabalitzen da (hori barne), baldin eta goi-mailako edo horren pareko lanbide-hezkuntzako edo unibertsitateko ikasketak egiten ari badira.

**3. Errolda:**

- Familia-unitatearen errolda-helbide bera.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

- Familia-unitatea osatzen dutenen errolda-ziurtagiria, helbide jakinekoa.
- Ebazpen judiziala: legezko banantzea, ezkontza-deuseztasuna edo beste.
- Eskatzen diren bestelako egiaztagiriak: desgaitasuna, ezintasuna, ikasketak —22 urtetik 25era bitarteko seme-alabak—, eta abar.